



BARREN
TOKI.COM



Lorearen hots elektronikoak

IREKIERA BERRIA!

Ogitartekoak
Hanburesak
Entsaladak
Razioak
Pizzak
Plater konbinatuak
Postreak

GOSARIAK


2,50 €


Errosario kalea 31, behea

943 128 033






LAGUN ARTEA
TABERNA

WiFi

 **federópticos**
Ikus

 **audiocentro**
Ikus

Honako sintoma
hauetakoren
bat baduzu?

-  Buruko mina
-  Ikusmen-nekea
-  Begletako azkura
-  Begi-keina
-  Hatzamarrarekin irakurtzea

Bi beglen azterketa eginez, antzeman dezakegu edozein ikusmen-difuntzio, eta tratamendua eman diezazukegu.



Jose Artetxe, 10
Tel: 943 15 75 74 - AZPEITIA

Zigordia kalea, 7
Tel.: 943 133 151 - ZARAUTZ

San Bartolome kalea, 10
Tel.: 943 743 734 - **ELGOIBAR**



BARREN

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENen edo
www.barren.eus webgunean**

 **943 744 112**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



**Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR**



INMA MUGERTZA

“Ura ez da babestu beharreko elementua, kontsumorako produktua izaten jarraitzen du eta”

Pasa den martxoaren 22a Uraren Nazioarteko Eguna izan zen, Ander. 1993. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusiak ezarri zuen egun hau, uraren balioa azpimarratzeko eta bere babesa eta kudeaketa jasangarria bultzatzeko asmorekin. Baina 23 urte pasatu dira, eta berdintsu jarraitzen dugu, Patxi urtegiak inauguratzen zituen garaien antzera. Hau iruzurra!

Edateko eta jakiak prestatzeko beharrezkoa dugu... hemen eta planetako edozein lekutan. Garbitu, jolastu eta lan urarekin egiten dugu. Gure ekonomiak, zati handi batean, uraren korronteen indarrean oinarritzen dira, bere gaineko garraioa eta azken batean, saldu eta erosi egiten ditugun produktuak era batera edo bestera urari lotuta daude. Gure bizitza, uraren inguruan garatzen da. Urrik gabe bizitzarik ez legoke. Hala ere, oraindik, ura ez da babestu beharreko elementua, kontsumorako produk-

tua izaten jarraitzen du eta. Izenburu polita, U-r-a-r-e-n N-a-z-i-o-a-r-t-e-k-o E-g-u-n-a, eta edukin hutsa. Ez duzu uste?

Hirugarren Munduko leku askotan ez dute edateko ura ezagutzen. Munduan 884 milioi pertonek ez dute eskura edateko urik, baina Nazio Batuek 2010ean edateko ura eskura izatea giza eskubide modura jaso zuten. Ze polita!

Bitartean, hemen, hiri handietako luxuzko hotel batzuetan, ardoen kartarekin batera, jatorri ezberdinetako ur mineralak eskaintzen dira. Txantxa dirudi!

Non dago jasangarritasuna? Eta babesa? Eta giza eskubideak?

Sutan jartzen nauen gai bati heldu diot, eta 100 litro urek amatatu ezinezko sua dela iruditzen zait. Hala ere, Ander, ekosistemei dagokienez, berri hobeagoak izango dituzu akaso... alaitu nazazu, arren!



ANDER IZAGIRRE

“Horren arrazionala, hertsia, mugatua al da bizitza? Ezezkoan nago”


Argi dago uraren kontuek asko arduratzen zaituztela, Inma, eta eskerrak. Nik urarekin egiten dut lan, baina guztiz desberdina den mundu batean. Egunero ikusten dut, enpresa munduan ere, zer nolako garrantzia duen urak, industria mota askok ezingo lukete eta beraien produktua ekoiztu urrik gabe.

Ekosistemak eta ura, gai zabala eta konplexua proposatu didazu, eta burua astunegi daukat nondik hasi ere asmatzeko. Gizarte honek buruan sartu digun ideia oker bat dator kit burura. Edo ideia okerra baino, nolabait engainatu egiten gaituztela esan behar ko genuke agian. Azken hamarkadan, harrikoa egin edota hortzak garbitzerakoan txorrota ixten ikasi dugu. Baina lantegietan kontsumitzen diren ur kantitateak askoz handiagoak dira eta haue-tan ez dugu txorrota ixten ikasi, ez. Oro har, energia mota guz-

tiekin gertatzen da istorio berbera. Etxean ura eta argindarra aurrezteko milaka kanpaina ezagutu ditugu, baina errealitatean, etxeko kontsumoa benetako kontsumoaren zati minimo bat besterik ez da. Etxean ura eta argindarra aurreztea beharrezkoa da, noski, baina gainontzeko tokietan aurrezten ez bada, norberaren borondate ona alferrikoa da!

Bestetik, munduan milioika pertonek edateko urrik ez dutela aipatu duzu. Maroko eta Saharan egon berri naiz, eta hainbat lekutan, jendeak ura hildako animaliak pilatzen diren uharka batzuetatik hartzen duela ikusi dut. Beraz, kalitatezko ura bermatu gabe, edateko ura izate hutsa, ez dut uste eskubide duina denik.

Bai, badakit ez zaitudala alaitu. Ahaztu aurrekoa eta herriko iboia orain hamar urte baino garbiago dagoela pentsatu... En-gainatu zuk ere zure burua.



Faxisten sarrera Elgoibarren

bezala, guztia atzera bota eta alkatea kargugabetu zuela.

1936an, Estatuako hauteskundeetan, Elgoibarren ez zuten Fronte Popularrak irabazi, PNVk baizik. Halere, 1933an legez kanpo jarritako 1931ko alkatetza demokratikoak itzuli zirenean, bertako *Agrario-católico* atzerakoien esku geratu zen agintea.

Uztailaren 18an, faxistek estatu kolpea eman zutenean, bi astetan estatu

Entzun ondo: Espainia da, Kanbodiaren ondoren, desagertu gehien daukan munduko estatua. Ez daukagu Argentinara edo Txilera begiratu beharrik. Gure mendietan dauzkagu, bide bazterretan, lurperatuak.

Laurogei urte beteko dira irailaren 21ean, faxistak Elgoibarren sartu zirenetik. Hildakoak, presoak eta erbesteratuak eragin zituen horrek, baina inork ez du ordaindu. Irabazleak dira justizia ezartzen dutenak. Galtzaileak, jasaile. Transizioa deitu zuten horretan euren buruak amnistiatu zituzten, eta amnesia ezarri jendartean. Dena ondo lotuta utzi zuten norbaitek, hurrengo hamarkadetarako.

Baina guk, berandu bada ere, ahaztuen oroimena atera nahi dugulako, gogora ekarri nahi dugu ilraileko gertaera tamalgarri hura. Irailaren 24an izango da, Taupada Antzez Taldearen zuzendaritzapean, eta hainbat herritarren laguntzaz. Anima zaitetzte. Justiziarik ezean oroitzapena da gure arma bakarra.

Laurogei urte beteko dira uztailean, faxistek II. Errepublikaren aurkako estatu kolpea eman zutenetik.

1931n Espainiako II. Errepublika Eibartik hasi eta estatuan aldarrikatu zeneetik, egoera ez zen politikoki erraza izan. Elgoibar, orduan ere nahiko kontserbadorea zenez, ez zen borroka politikoa-
ren erdian egon, ingurukoak eragina izan zuten arren. Grebak egin ziren, atxilotuak ere egon ziren 1934ko iraultza saiakeretan, eta burujabetzaren alde ere bozkatu zen, Espainiako botereak, beti

*“Berandu bada ere,
ahaztuen oroimena atera
nahi dugu”*

menperatuko zutela uste izan zuten, baina egoera erabat gaitzotu zitzaizen: hiru urte behar izan zituzten, eta milaka hildako, preso eta erbesteratu, euren gizarite nazional-katolikoa inposatzeko.



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
b 21 14334



Gizarte eta Kulturako Foru Aldundia



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► BERTSO ESKOLA, AURKEZPENA

(Doinua: Pasaiko plazatik)

Gu bertso eskolako
ikasliak gera,
martitzenero gatoz
bertsuak eitxera.
Kontuan izan eta
ez galdu aukera.
Animatzen zaitzugu
hona etortzera!

Beinke bertso eskola

► IGANDEAN DENOK BILBORA

Apirilaren 17an Preso Politikoen Nazio-arteko Eguna ospatzen da. Honen harira manifestazio nazionala antolatu da Bilbon. *Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera* izango da manifestazioaren leloa. Manifestazio horren bidez espainiar eta frantziar estatuetako kartzeletan jarraitzen duten ia 400 presoek babesa helarazi nahi zaie, bai jasaten duten bortizkeria sistematikoari aurre egiteko borrokaldi eta ahalegin guztietan, baita legealdi barneko baliabideak erabiltzeko erabaki eta urratsak ematean ere.

Presoen kolektiboak (EPPK) talde moduan hartzen dituen erabakiak errespetatzea funtsezkoa da une honetan. Erabakia horiek banan-banakoak izango dira baina erabaki kolektiboak izango dira, aurrekoak ziren bezalaxe. Helburua ez da egun bakarrean erdietsiko, modu dinamiko eta antolatuan baizik. Legedia eta espetxe araudiaz baliatzeak ez du inola kolokan jartzen haien guztien izaera militantea, garatutako bidearen balioa eta duintasuna. Ez orain, ez lehen.

Une honetan beharrezkoa da euskal jendartearen engaiamendua indarberitzea. Dispersioaren aurka eta euskal preso zein iheslari politikoen etxeratzearen alde azaldu diren eragile eta eta instituzioei gonbitea luzatzen zaie elkarrekin aritzeko bide honetan.

Manifestazioa eguerdiko 12etan irtingo da La Casillatik. Elgoibartik autobusa 11etan irtingo da Txankako zubitik. Izen ematea Jai Alai tabernan izango da.

Ezker abertzalea

► ESKERRIK ASKO, ETA DATO- RREN URTERA ARTE

Gogotik saiatu arren, emaitza ez da beti nahi bezalakoa izaten, baina seigarren Kilimon Trail mendi lasterketak ahozapore ezin goxoagoa laga digu, eta hori, neurri handi batean, zuei esker izan da. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu, beraz, beste urte bat gehiagoz ondoan izan zaituztegun guztioi. Lehenengo eta behin, gure eskerrik beroenak, zuei, babesle eta laguntzaileoi: Mendaroko Udala, DanobatGroup, La Sportiva, Berria egunkaria, Landa erretegia, Txarriduna hotela, Elgoibarko Iriondo Kirolak eta Astigarraga Gys Sport kirol-dendak, Basquestay, Iraolagoitia aroztegia, Mecanizados Novak, Osoro garraioak, Elkar autozerbitzua, Asketa S.L., Lerun jatetxea, Txirristaka, Uztargi eta Lagun Betikoak tabernak, Mauri harategia, Mausitxa eta Altzola-Berazeta ekoizleak, Kaiku, Arruabarrena, Insalus, Debabarrena, Podoactiva, Aneto, Infisport, Powerade eta Ekonura.

Maila honetako lasterketa bat antolatzek, baina, norbanako askoren ahalegina eta bultzada ere eskatzen ditu, eta hori ere izan dugu, bai. Asko izan zarete batera zein bestera Kilimon Trail handi egiten lagundu duzuenok eta gure eskerrik zintzoena, beraz, zuei, herriko eta inguruko lagunoi. Herri oso baten beroa sentitu dugu, eta ez dakizue ondo zein gauza handia den hori. Eskerrik asko eskainitako laguntzagatik eta emandako erraztasunengatik; zuena ere bada Kilimon Trail! Eta bukatzeko, mila milioi esker mendi lasterke-

ten egutegi bete horretan Kilimon Trail aukeratu duzuen korrikalarioi. Zuek ematen diozue sona lasterketari eta entzutea gure herriari, eta baita indarra eta ilusioa ere guri, datorren urtean lasterketa hobea antolatzeko. Zazpigarrenean ere gure onena emango dugula agintzen dizuegu. Datorren urtera arte beraz; zain izango zaituztegu.

**Mendaroko Txirindulari Elkarte
eta Lizarpe Mendi Kluba**

► ERABAT ADOS

Erabat ados 987 aleko eskutitzarekin. Kalea konpartitzeko da eta ez dauka jaberik.

Maalako kotxeen errepidea ixtea ez zait gaizki iruditzen, baina arazoa beste leku batera pasatzen da azkenean. Eta zein da leku hau? Gabriel Kurutzelaegi eta Iñigez Karkizaoko errepidea hain zuzen.

Astebukaeretan izaten den kotxe affluentsia demasa da, zeren maalan izaten zen trafikoa orain errepide honetara bideratzen da, zarata eta kutsadura handituz. Gainera, inguru hau auzo bat da, gune zabali gabe eta zarata kontzentratu egiten da nolabait esateko. Eta honi bertatik pasatzen diren kotxeen abiadura gehitu behar zaio, askok errepide general bat bezala erabiltzen dute eta, demaseko abiaduratan pasaturik, horrek dakarren arriskuarekin.

Udaletxearen asmoa, astebukaeretan herriko errepideak zona peatonal bihurtzea bada, egin dezatela ondo, herri barneko errepideak itxiz eta kotxeak herria inguratzen duten errepideetara desbideratuz. Nire ustetan, hori izango litzateke irtenbide logikoena.

Beste gauza bat izango litzateke, Maalako errepidea ixtearen asmoa bertako tabernen eta komertzioen eskakizun zuzen bat izatea.

J.L.E.

Etorkizunean zerbitzu sozialen eskaerek gora egingo dutela iragarri du EDE fundazioko Jaime Garciak

Gizarteratze Mahaiak antolatuta, EAEko gizarte zerbitzu sistemari buruzko hitzaldia eskaini zuen EDE Fundazioko Jaime Garciak eguaztenean. Zerbitzu sozialen eskaera gehiago egongo dira etorkizunean, Garciaren arabera. Zerbitzu sozialetara gastu publiko handiagoa bideratu beharko litzatekeela eta laguntzak modu eraginkorrago batean antolatu beharko liratekeela nabarmendu zuen. Ikuspegi prebentiboa ezartzearen alde agertu zen.

Zerbitzu sozialen inguruan herritarrek duten ezezagutza oso handia dela uste du Garciak. "Gizarte zerbitzuek bisibilitate sozial txikia dute". Sistema oso bat izan arren, jendearentzat administrazioek eskainitako zerbitzu eta laguntza sorta baino ez dira. Hala ere, gizarte zerbitzuen sistema herritar guztiarentzako dela nabarmendu zuen Garciak.

Krisialdi ekonomikoan jendearen premiak areagotu direnez, laguntza eskaerrek gora egin dute. Baliabide ekonomikoak, beraz, beharretara egokitu behar dira, EDE fundazioko kidearen iritziz, "gutxieneko koberturak bermatzeko".



Zerbitzu sozialetan administrazioek diru gehiago inbertitu behar dutela uste du. Horrekin batera, baliabideak modu egokian kudeatzeari garrantzitsua deritzo.

Etorkizun hurbil eta luzera begira, gizarte zerbitzuen eskaria handitu egingo dela iragarri zuen, besteak beste, gizartea zahartzen doan heinean, dependentzia egoeran dauden pertsonen kopuruak gora egingo baitu. Horrez gain, zaintza eredu gertatzen ari den eredu aldake-

tari erreparatu zion, eta zaintza eredu formal indartzea garrantzitsua dela uste du.

Zerbitzuen eskaria handitzeko beste arazoietako bat krisialdi ekonomikoaren eraginean kokatu zuen Garciak. Horrek beharretan eta baliabideetan izan du eragina batez ere.

Eredu komunitarioa ezartzeko beharra dago, Garciaren arabera. Ikuspegi promotorea eta prebentziozkoa txertatu beharraz hitz egin zuen.

Zerbitzuen prekarizazioaren aurka protesta eginez pasatu zen suhiltzaileen martxa eguaztenean



Suhiltzaileak bizikletan pasa ziren eguaztenean Elgoibartik. Aste honetan EAE zeharkatu dute Jaurlaritzak onartu nahi duen lege proiektu baten aurka protesta egiteko. Suhiltzaileen arabera, zerbitzuak prekarizatuko lirateke eta suhiltzaileen etxeak gabez ixteari ateak irekiko litzazkioke. Martxa martitzenean hasi zen eta gaur amaituko da Gasteizen.

Saint-Gerons txokolate dendako lapurretan ez zuten bonboi bakar bat ere laga

Bonboi bakar bat ere ez dute laga denda guztian", azaldu zuen Quique Saint-Gerons Mendaroko txokolate dendako arduradunak, lapurrak sartu ondoren. Asteburuan Mendaroko Landa jatetxean ere sartzeko ahalegina egin zuten lapurrek asteburuan, baina ez zuten ateko sarraila hausterik lortu.

Mendaroko Saint-Gerons txokolate dendako beharginek demaseko ezustekoa hartu zuten astelehen goizean denda irekitzera joan zirenean. Denda guztia hankaz gora, nahastuta, aurkitu zuten eta apalategi guztiak hutsik. Txokolate eta kakao guztia ostu dietela azaldu du Quique Saint-Geronek. "Txokolate guztia eraman dute, dendan ez dute bonboi bakar bat ere laga. Egin ditugun lehen kalkuluen arabera, 350 txokolate tableta, katiluan hartzeko txokolatea egiteko beste 150 tableta, 50 kakao poltsa, trufak, bonboiak... ez dute ezer laga". Jeneroaz gainera, armairuetako kaxoiak ere ostu dituzte. "Museoko piezak dira dendan ditugun altzari asko, XVIII. mendekoak batzuk, eta duten balioaz gain, balio sentimental handia dute gurea moduko tradizio handiko familia enpresa batentzat", esan



du Quique Saint-Geronek. Era berean, dendarekin lotuta da goen bizilekuan ere sartu ziren, eta hortik ere eraman dituztela hainbat gauza. Txokolate lantegira ez ziren sartu.

Horrenbeste txokolate ostuta, jateko baino saltzeko asmoa izango dutela lapurrek uste du Saint-Geronek. Hori dela-eta, ohiko tokietatik kanpo, merkadillo edo ferietan saltzen ari direla ikusiz gero, ez erosteko eta Ertzaintzari abisua emateko eskatu dute txokolategileek.

'Feministok prest!' lelopean talde argazkia atera dute Mendaron



Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak *Feministok prest!* lelopean talde argazkia atera zuen barixakuan. Modu honetan, hurrengo egunean indarkeria matxistaren kontra Gasteizen egingo zen manifestazioari atxikimendua adierazi zioten. Tratu Onen Aldeko Taldearen arabera, "bi bilera-tailer egin ditugu eta 26 pertsonak hartu dute parte, 17 emakumek eta 9 gizonak. Horiekin batera, Gaztelekuko hiru gazte aritu dira gurekin boluntario lanetan, eta beste hainbat herritarrek gure blogaren bitartez (mendarokotratuon.blogspot.com) jarraitu digute". Bi helburu dituzte: hilketa matxistei erantzuna ematea eta matxismoaren alderdi naturalizatu eta ezkutukoei aurre egiteko proposamenak lantzea.

Datorren asteburuan, pintxo lehiaketa Mendaron

Datorren asteburuan, apirilaren 23an eta 24an, pintxo lehiaketa izango da Mendaron. Eguerdian 12:00etatik 15:00etara eta arratsaldean 19:00etatik 21:00etara dastatu ahal izango dira pintxoak Mendaroko tabernetan. Pintxoak euro bateko prezioan eskuratu ahal izango dira.

Azpilgoetako Arratsek, Mendiixok eta Ormolak parte hartuko dute lehiaketan. Herriko enparantza aldeko Chow, Uztargi eta Lagun Betikoak ere izango dira lehiaketa. Mendarozabaleko Aitzbeltz, Txirristaka eta Toki Alaik ere parte hartuko dute. Ospitaleko Luzaide ere arituko da.

Epaimahai teknikoak aukezpena, zaporea, originaltasuna eta testura baloratu beharko ditu. Horrez gain, herritarrek ere baloratu ahal izango dituzte pintxoak eta haien artean 50na euroko bi bonu zozketatuko dira.

Sari banaketa maiatzaren 3an egingo da udaletxeko pleno aretoan.

Hasi dira gurasoentzako tertulia saioak, euskara praktikatzeko



Gurasoentzako Tertuliak egitasmoan parte hartzen duten kideak hasi dira elkartzeko, euskara praktikatzeko. Gurasoak mingainak dantzan jartzea da Gurasoentzako Tertuliak programaren helburua. Hala, euskara praktikan jartzeko beharra dutenek (Bidegile izenekoek, euskararen bidea egiten dutenek) euskaraz egiten dutenekin (Bidelagun izenekoekin) elkartu eta tertulian berba eginez euskaraz aritzeko erraztasuna lortu eta euskaraz jarduteko lotsa kenduko dute. Astero hasi dira elkartzeko. Beste gurasoren batek parte hartu nahi badu, Elgoibarko Izarra elkartera jo dezake (943 741 626).

Domeka iluntzean emango dute Jordi Evolek Otegi egindako elkarrizketa



Jordi Evole eta La Sextako *Salvados* saioko lantaldea Arnaldo Otegi elkarrizketatzera etorri zen Elgoibarrera joan den astean. Txillarre baserrian egin zioten Otegi elkarrizketa martitzenean, eta Azkoitiko Otarre jatetxean bazkaldu zuten gero. Elkarrizketa domekan ikusi ahal izango da, 21:30etik aurrera.

Zapatuetan Toletxegaineko geralekuak zerbitzua emango du

Bihartik aurrera (apirilak 16) zapatuetan Toletxegaineko geralekuan geldituko dira trenak berriro ere, Udalak Euskotren konpainiari egindako eskaeraren ostean. Horrez gain, Euskotren aztertzen ari da zapatuetan Eibar eta Ermua arteko tren zerbitzua Elgoibarreraino iristea.

Martitzenean Asmaola eraikina inauguratuko du IMH

Apirilaren 19an Asmaola eraikina inauguratuko du IMHk. Ekitaldia 15:30ean hasiko da. Asmaolaren helburua da Lanbide Heziketako sistematik enpresei berrikuntza aplikatua eskaintzea. Proiektuan Lanbide Heziketako 13 ikastetxe parte hartzen ari dira. Inaugurazio ekitaldian izango dira, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria, Markel Olano diputatu nagusia, Ane Beitia alkatea eta Arantza Tapia sailburua.

Bilboko manifestazioan parte hartzeko dei egin dute preso ohiek

Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera manifestazioa egingo da domekan (apirilak 17) Bilbon, 12:00etatik aurrera. *Abian da bidea* manifestuarekin bat egin duten Elgoibarko 12 preso eta iheslari ohik manifestaziora joateko deia egin dute (Julen Agirre, Juli Arregi, Jose Antonio Arribillaga, Sebas Elizburu, Inazio Iriondo, Gemma Jaio, Jon Iñaki Jaio, Rosa Martinez, Juan Mari Mendizabal, Iñaki Odriozola, Arnaldo Otegi eta Joseba Zinkunegi). Autobusa 11:00etan irtengo da Txankakuatik (izen ematea, Jai Alai tabernan).

Astelehenean, Elgoibarko Izarra elkartearen urteko batzarra

Elgoibarko Izarra elkarteak Urteko Batzar Orokorra egingo du astelehenean (apirilak 18), 19:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Iaz egindakoen balorazioa eta diru kontuak aztertuko dira batetik, eta aurtengo lan-ildo nagusiak eta aurrekontuak aztertuko dira bestetik.

Lorea
Argarate
Zubia

Disko jartzailea



“Ordenagailu batekin kanta profesionalak egiteko gaitasuna lor daiteke”



DROM studio

Las Tea Party DJs. Izen hori entzunda atzerriko doinuak etor daitezke gure belarrietara, ez da hala ordea. Bilbokoa da disko-jartzaile bikote hau (Lorea Argarate eta Eva Gutierrez -La Cuisine-). Lorea Argarate, ordea, txikitako doinu asko Elgoibarren entzundakoa da, bera bilbotarra izan arren ama eta aita eta familia guztia elgoibartarra baitu, eta Elgoibarren pasatu ditu bere etapa asko. Euskal Herriko eta inguruko musika-areto eta jaiguneak hankaz gora ipini ditu estilo ugaritako musika nahastu eta erritmo biziko saioak sortuz. Jende asko erakartzen dute eta Elgoibarrera bisitan orain gutxitan etorri arren, DJ saio bat egitera etorritz gero, askotan buruan dituen familia eta hemengo lagunak aldamenean izan nahi lituzke saltoka.

♦ **Sustraiak Elgoibarren daukazu, baina zu Bilbokoa zara. Bilbok musika-rako aukera gehiago emango ditu, ezta?**

Bilbok aukera gehiago ditu nahiz eta Elgoibarren geldi geratzea zaila iruditzen zaidan. Handiagoa da eta musika gehiago programatzen da, beraz, gauza



berri gehiago ikusteko aukerak daukagu. Musika ikasteko orduan oso antzerakoa dela esango nuke.

♦ **Disko-jartzaile moduan ibiltzen zara, baina aurrez beste estilo batzuetan ibilitakoa zara. Salto handia al da?**

Txikitatik ibili naiz musika munduan, bai Kontserbatorioan –ez zitzaidan asko

gustatzen-, baita musika taldeetan. Pop, rock eta swinga nahasten genituen talde batean egon nintzen urte askoan, baita Elgoibarko lagun batzuekin (Aitor Nova, Ihintza Elsenaar eta Ainhoa Mendibil) Hankahutsik taldean ere. Oso gustura sentitzen nintzen haiekin. Hori bai... Mautxa txaranga jotzeko gogoa inoiz ez zait joango! Elgoibarren bizi izan banintz...!

Saltoa ia nahi gabe suertatu zen. Kalerira irten eta tabernetan jartzen zuten musika ez ziztaigun gustatzen, DJ munduan sartuta zebiltzan lagun batzuk geneuzkan eta ikasten hastea pentsatu genuen eta konturatzera Bilboko alde zaharreko tabernetan (lagunen tabernak) pintxatzen ari ginen.

◆ Nola eman zenituzten lehen pausoak disko jartzaile moduan?

Lagunen tabernetan pintxatzen egon ginen pare bat urtez Sala Sonoratik deitu ziguten arte. Bilboko diskoteka berri bat zen eta han izan genuen gau giroarekin lehen ikutua. Bertan bi urtez egon ginen, beraz ez genuen hain gazki egin. Hori bai, inoiz baino gehiago ikasi genuen, bai teknikoki bai eta gau inguruan mugitzen ere. Gaur egun, Fever Cluben

“Mautxa txaranga jotzeko gogoa inoiz ez zait joango. Elgoibarren bizi izan banintz...!”

gaude, Bilboko beste diskoteka batean eta aurten bigarren urtea beteko dugu. Horrelako sala handiek nazioarteko artistak ezagutzera ahalbidetzen dute eta urte osorako lana.

Udan kontzertu asko izaten ditugu Euskal Herriko herrietan, baina negua helurtzean... Kaleko eszenatoki baten egon ginen lehen aldian Soraluzen izan zen 2010ean.

◆ Zein motatako musika jartzen duzue zuen saioetan?

Musika elektronikoa jartzen dugu, electroswingetik abiatuta, moombahtoa, trap eta EDM bezelako musika estiloak ukitzera arte. Beti diogu maleta ondo preparamatuta eduki behar dela baina saioa ez, leku bakoitzak eta publiko bakoitzak leku

batera eramango gaituelako.

◆ Disko jartzaileak ezkontza osteko dantzaldietan ikusten dira, baita diskoteka handietan ere, zuek bezala. Nola da Disko Jartzaileen mundua?

Disko Jartzaileen mundua oso zabala da eta gero eta zabalagoa izango da aurrerantzean. Gaur egun oraindik oso anekdotikoa dirudi DJa naizela esatea, baina, gero eta pertsona gehiago ari dira mundu honetan sartzen. Estilo asko daude, teknika asko, erremienta desberdin asko, eta gainera, musika produktioaren mundura hurbiltzen gaitu. Mundu digitalak asko erraztu du guztia eta ordenagailu batekin kanta profesionalak egiteko gaitasuna lor daiteke –ordu asko pasatuta hori bai!–. *Live* mundua ere potente dago, hau da, zuzenean sortzen dugun pieza edo saioa.

◆ Zuen bikoteak arrakasta handia izan du. Nola hartzen zaituzte jendeak?

Euskal Herrian arrakasta izugarria izan dugu kontuan hartuta horrelako musika eta saioak ez direla hemengo jaietan propio izaten. Jendeak dantza egiteko gogo asko dauka eta horrela ikusi da plaza askotan. Jendearen eran-



Xabi Muñiz



tzuna oso ona izan da eta asko esker-tzen diegu horrelako abentura bat bizitzzen uzteagatik.

◆ **Neskak eta gazteak izanik, mundu honetan aritzea askori ez zaio oso ohikoa irudituko, ezta?**

Gazteak eta neskak, bai! Orain ala inoiz ez! Hala ere, ez diogu aparteko garrantzirik ematen. Galdetzen digutenean bakarrik oroitzen gara horretaz. Egia da mutil gehiagorekin gurutzatzen garela, baina ez dugu inoiz arazorik izan eta uste baino neska gehiago dabil egurra ematen, beraz adi egon!

◆ **Gaur egun Fever Cluben aritzen zara. Nolako sentsazioak izaten dituzu?**

Fever Cluben egoten gara hilabetean bi aldiz eta batzuetan kanpora joateko aukera izaten dugu. Orain dela gutxi Madrilen, Bartzelonan eta Santanderren egon gara. Horrez gain, hemengo herrietan eta auzoetan aritzen gara, ez dagoelako hemengo beroa bezelakorik! Plazer hutsa da jendea dantzan ikustea eta denon artean sortzen den giroaz disfrutatzea. Nerbioak beti izaten ditugu eta hori ez dugunean proiektua uzteko garaia izango da.

◆ **Zein disko jartzaile edo musikari dira zuen erreferentzia edo eredu?**

Erreferentziak asko dira, kontzienteki dakizkigunak baino gehiago, baina erreferentzia indartsuenak guretzat, erresistente moduan egondako diskoteketan izan ditugun lankideak dira. Oso lankide onak izan ditugu eta irakasteko prest egon dira beti, haiekin ondo pasatzeaz gain, asko ikasi dugu.

◆ **Disko-jartzen zuzeneko saiioak egiteaz gain, hainbat musikarirekin ere aritu izan zarete, Napoka Iriarekin esaterako. Oso ezberdina da?**

Napoka Iriarekin lan egitea sorpresa eta poztasun handia izan zen. Izan dugun lan zailenatarikoa; izan ere hain zen

kanta polita... beldurra ematen zuen eskua sartzea! Oso berezia izan zen.

Gose edo Oliba Gorriak bezalako taldeekin parte hartzeko aukera ere izan dugu eta asko eskertzen da horrelako proiektuetan parte hartu ahal izatea. Beti dira esperientzia ahaztezinak.

◆ **Aurrera begira badauka proiekturik esku artean Las Tea Party-k?**

Esku artean dugun proiektu potoloena gure lanak ateratzea da. Badauzkagu hainbat kanta, baina azken ukitua emateko denbora behar dugu eta ez dugu unea topatu! Horrez gain, udarako show berria prestatzen ari gara ikuskizun berri bat eskaintzeko asmoz.

◆ **Elgoibarren saioaren bat eskaintzeko gogorik edo asmorik baduzu?**

Elgoibarko gaztetxe berrian musika jartzeko aukera izan genuen hasi berriak ginela! Su Ta Garrekoek hasi zirenean egin zuten bezala! Maalan ere egon ginen jai batzuetan orain dela urte nahikotxo. Eta espero dugu laster Kalegoen plazan edo Maalan berriz ere aritzea. Nik nahiago nuke Maalan, horrela amama balkoitik begira egongo litzateke-eta.

“Plazer hutsa da jendea dantzan ikustea eta denon artean sortzen den giroarekin disfrutatzea”

Zoru-klausularen gaia lantzen ari diren taldeek bankuekin ezer ez sinatzeko ohartarazi diete kaltetuei

Madrilgo epaitegi batek 40 finantza entitateri agindu berri die 2013ko maiatzetik hona zoru-klausulen ondorioz bezeroei kobratutako gehiegizko kopuruak itzultzeko. Hipoteka mailegu bat kontratatzean, interes tasa finkoa edo aldakorra izan daiteke. Interes aldakorra duten batzuei ezarri izan diete zoru-klausula edo gutxieneko interes tasa. Interesak asko jaitsi badira ere, klausularen eraginez hipotekagatik ordaintzen ari diren kopurua ez zaie jaitsi.

Debabarreneko Stop Desahucios taldeko Julio Uzquizaren esanetan, "zoru-klausula %3 edo %4an jartzen zuten bitartean, sabaia %18an jarri izan dute kasu batzuetan. Eta inork ez du imaginatzen interes tasa %18ra igo daitekeenik. Hori da epaileek gehiegizkotzat jotzearen arrazoi nagusia, jende gehienari eman dako informazio eskasarekin batera".

Banketxeen kontra epaitegietan jarritako salaketa asko kolektiboak izan dira. Interes tasak jaitsi ahala jendea mugitzen hasi da. "Gure eskualdean euriborra + %1 duten batzuei entzun diegu kuota jaitziko zitzaizela, eta bapatean konturatu dira ez zaiela jaitzen klausularen eraginez". Aldi berean gertatu zitzaizkien denek eta kontsumitzaile elkarrekin bidez ekin zioten auzibideari.

Gehiegizkoa

Auzitegi Gorenak 2013an ebatzi zuen zoru klausula gehiegizkoa zela. Erabiltzaile batzuek, klausularen eraginez banketxei 2013 aurretik ordaindutakoa berreskuratzeko, auzibidean jarraitu dute. Madrilgo Epaitegiaren sententzia horren ondorio da, eta arrazoia eman dio Gorenari. Era guztietara, apirilaren 26an Europako Justizia Auzitegiak gai honi buruz kaleratuko duen ebazpenak berebiziko garrantzia izango du.

"Europako Auzitegiak klausula gehie-



Sergio Fernandez (zoru-klausulak kaltetutakoa) eta Julio Uzquiza (Stop Desahucios)

gizkoa dela ebazten badu, logikoa litzateke hasieratik kobratutako gehiegizko kopuru guztia itzularaztea. Baina hori esaten badu, hil honetako sententziak ez du ezertarako balioko, eta kaltetutakoek beste errekurso bat jarri beharko dute", dio Uzquizak.

Stop Desahucios taldeko kideak uste du auzibideak erabiltzaileei emango diela arrazoia azkenean, eta zoru-klausulak orokortu dituzten finantza entitateek arazo larria izango dutela uste du. "Pentsatzen dugu Europako Justizia Auzitegiak interes tasa aldakorretik gora kobratutako kopuru guztiak itzularaziko dizkiela, eta entitateek diru asko itzuli beharko dute", uste du. "Zoru klausula lagatzeak esan nahi du irabazi gutxiago izatea".

Entitate batzuek klausula kentzeari ekin zioten, baina gero salaketa ugarien mehatxuz ohartu ziren. Hori dela eta, "bezeroei deitu eta kentzearen truke interesa puntu bat jaitzea proposatu diete kasu batzuetan baina horrekin batera, dokumentu batean sinatzen duzu ez duzula inongo kopururik erreklamatu. Eta jende

askok sinatu egin du", dio Uzquizak. "Beste kasu batzuetan, dirua ere eman diete bezeroei, zoru klausula kentzearen: '2.000 euro emango dizkizugu'".

Elgoibarren

Elgoibarren, zoru klausulak eragindakoak antolatzen hasi ziren 2016ko otsaillean, klausula aplikatu zieten bankuen aurka auzibide kolektiboak ekiteko. Ez dakite zehatz zenbat kaltetu dauden, baina asko direla uste dute.

Antolatzen ari direnetako bat da Sergio Fernandez elgoibartarra. Badaki Elgoibarren bankuarekin adostasun batera heldu direla kaltetu batzuk, modu indibidualean. Bere esanetan, hori ez da irtenbidea. Elgoibarko kaltetuen taldeak eta Stop Desahuciosek ohartarazi diete zoru-klausula duten guztiei "ezer ere ez sinatzeko" ..

Beraiekin harremanetan jartzeko eta informatzeko eskatu diete beste kaltetuei. "Irtenbidea salaketa kolektiboak jartzea izan daiteke", adierazi dute. izan daiteke", adierazi dute.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Trenbide bazterrak zikin: "Trenez bidaiatzen dudan herritar bat naiz eta trenetik jaitsitakoan ere maiz erreparatzen diot trenari eta trenbideari. Sarritan konturatu naiz trenbide aldamenak oso zikinak daudela plastikozko poltsaz, botilaz... beteta. Trenetako leihotatik ezin da ezer ere bota eta trenbide bazterrak babestuta daudenez, beste toki batzuetatik botatzen dute zabor hori guztia. Zakar hori guztia botatzen dutenei eskatuko nieke horretarako propio dauden tokietara botatzeko beste edozein inguru zikindu gabe. Bestalde, dagokionari trenbide bazterrak garbitzeko itxura txukunagoa izan dezaten".



Parke edo ziburuak noizko?: "Iñiguez Karkizaako bizilaguna naiz eta seme-alabekin erdi aldera joaten naizenean zalantza sortzen zait. Gabriel Kurutzelaegi, Iñiguez Karkizao eta Artexen bizi den familia kopurua zenbaterainokoa den kontuan hartuta tristea iruditzen zait inguru horretan parke, ziburu ezta txirristada bat bera ere ez egotea. Porteria edo saskirik ere ez. Gure umeek jolas egitera joateko herriko beste auzo batzuetara joan behar dute? Hiru-lau jolas jartzeko zer behar da, Maalakoa adinako kristalezko 'palazio' bat jartzea? Dagokionari galdetu nahi nioke ea ba al dagoen noiz-bait herriko zonalde horretan umeentzako gunerik jartzeko asmorik, eskertuko genuke-eta".

A. Garate
Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

atzak
taberna
San Roke, 28. behea
943 531 301 / 646 443 183
Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

ORBE
PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK
Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860
www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com
TOLDOAK ETA PERTSIANAK

CORDON VILARCAHO
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasoze behea, 16 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 740 678

DEKORAZIOA
Kopioa samarrez egiten
Zuhaitz sarrak
Lakadak eguztaren PVC
Pintak zirkonak
COPOL
REALISM

Dantzariak fin Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan



Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu zen Elgoibarren asteburuan. 58 dantzari hartu zuten parte, tartean 11 elgoibartarrek. Zapatuan Ane Jaunarena eta Mattin Etxebeste izan ziren irabazleak eta domekan Nora Fraile eta Iker Belintxon. Nerea Sasiain elgoibartarra bigarren izan zen bere mailan. Domekako jaialdia aprobeixatu zuten dantzariak eta txapelketa prestatzen hainbeste lan egin duten Arantxa Aginako eta Jon Lizarralderi oroigarria eta eskerrak emateko.

Danborradako entseguak martxan



Martitzenetan, 21:30etik aurrera danbor hotsak entzun ahal izango dira hainbat astetan Elgoibar erdigunean. Izan ere, Trinitate jailetako nagusien danborrada prestatzeko lanekin hasi dira dagoeneko. 200 lagunek hartuko dute parte danborradan aurten anbor eta kupel jotzaile eta gainontzeko parte hartzaileekin, antolatzaileek esan digutenez errekorra parte hartzaile kopuruari dagokionean. Beste urte batzuetan aritutako hainbatek laga dute eta gazteak sartu dira.

'Magia lapurra' antzezlan domekan Herriko Antzokian

Haurrek eta gurasoek domeka arratsaldean, 16:30ean, elkarrekin Herriko Antzokira joan eta antzerkiak gozatzeko aukera izango dute. *Magia lapurra* antzezlan eskainiko dute Asier Kydam, Iraitz Lizarraga, Alfonso Diez eta Bittor Agirre aktoreek Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean.

Magia eta sorpresaz betetako antzezlan izango da zuzeneko pianojole batekin. Dorleta neska gazteak magiarako zaletasuna duenez, mago laguntzaile izateko probara aurkeztuko da. Mago batekin jarriko diote hitzordua, baina magoa izan beharrean, lapurra izango da eta mago plantak egin arren ez da moldatuko. Hala ere, biak elkarlanean arituko dira proba egin behar duen benetako magoari ziriara sartzeko. Sekulako zalaparta eta egoera magikoak sortuko dira.

Sarrerak haurrentzat 3,5 euroan eta helduentzat 5 euroan egongo dira.

'Kreditua' antzerkia

Bestalde, apirilaren 29an Zuhaitz Gurrutxagak eta Joseba Apaolazak egingo duten *Kreditua* antzerkia ikusteko sarrerak ere salgai daude kutxa.net eta Kultur Etxean. Sarrera arruntek 10 euro balio dute eta ikasle edo gazte txartela dutenentzat 7 euro.



Miguel Angel Zeberio, Mugertza krosetako argazki lehiaketako irabazle



Aitor

Juan Mugertza Nazioarteko krosari buruzko argazki lehiaketako sariak banatu dituzte. 38 lan aurkeztu dira eta Errenteriako Miguel Angel Zeberioen *Campo a traves* argazkiak eskuratu du lehen saria. Lasterketako egun argitsuari probetxua atera zioten argazkilari guztiek, baina epaimahaiak zuri-beltzean aurkeztutako argazkia saritzea erabaki du. Bigarren saria Jokin Zubiaurre elgoibartari eman diote *Bizipoza* argazkiarengatik. Erakusketan boto gehien jaso dituen argazkia, berriz, Haizea Sanchez elgoibartarraren *Ispilua* izan da, pista gaineko putzu batean islatuta ageri diren atletena.

'Laudato Si' entziklika hizpide astelehenean

San Bartolome parrokiaren 300. urteurrenaren harira *Laudato Si entziklika*. Teilatuko berak estaltzen gaitu hitzaldia eskainiko du Inma Mugertzak apirilaren 18an, 20:00etan, Musika Eskolako auditorioan. Garai batean entziklikak obispoentzat ziren arren gaur egun edozeinek irakur ditzake. Frantzisko Aita Santuaren entziklikak ekologiaz hitz egiten du lehen munduko agintariengana zuzenduz. Gure planetako aldaketak komentatzen ditu: beraietan dugun eragina: ingurumenaren hondamendia, gure erantzukizuna... Arazoak konpontzeko pauso batzuk ere proposatu ditu. Mugertzak hainbat herritako ur-hornikuntzan egindako kolaborazioa dela-eta antolatzaileen ustez entziklikaren inguruko iritzi interesgarria eman dezake. "Nire asmoa ez da alde kristianoa ukitzea. Entziklikaren gai nagusia nire esperientziatik komentatzea baizik".

Brigada Improductiva eta Egurra Ta Kitto taldeak Sutegixan

Elgoibarko Sutegixa Gaztetxea musikaz jantziko dute Brigada Improductiva iruindarrek eta Egurra Ta Kitto azpeitiarrek bihar, apirilak 16, 22:30ean hasita.

Brigada Improductiva 2007an sortu zenetik, ska-rock erritmoak folkaren alaitasunarekin nahastu ditu emanaldi bakoitzean musika eta festa zabalduz eta gaztetxera ere jai giroa ekarriko du zapatuan. Zazpikote honek entzuleekin bat eginda musika adoretzu eta kritiko honekin gozatzea eta gozaraztea du helburu.

Egurra ematera

Egurra Ta Kitto Azpeitiko ska-punk taldea eszenatokian egurra banatzeko prest etorriko da. Taldean hainbat alda-



Brigada Improductiva Iruñeko rock, ska eta folk taldea.

keta egin zituzten eta indarberrituta ari-tuko dira eszenatokian.

Ska doinuak alde batera utzi gabe, punk-rock doinuetan sakondu dute kantu

berrietan aldarrikapen eta salaketa hitz zorrotzekin.

Kontzerturako sarrerak gaztetxean bertan egongo dira salgai 5 eurotan.

Walter Becerra eta Virginia Perez gailendu ziren Kilimon Trailean

Walter Becerra eta Virginia Perez nagusitu ziren domekan Mendaroko seigarren Kilimon Trail mendi lasterketan. Gizonetzkoetan, hiru saltakari nabarmendu ziren: Walter Becerra venezuelarra, Pere Rullan mallorkarra eta Zaid Ait Malek marokoarra. 23 kilometroko ibilbidea osatu ostean, Becerra eta Rullan orpoz orpo ailegatu ziren Herriko enparantzara. Sei segundoko aldea atera zion lehenak bigarrenari. Irabazleak ordubete, 57 minutu eta 25 segundotan osatu zuen ibilbidea. Ait Malek minutu bat eta 11 segundora iritsi zen. Bosgarren postuan sailkatu zen lehen euskalduna, Iker Oliveri hondarribiarra, eta Jokin Muñoz izan zen lehen mendaroarra, sailkapeneko 11. postuan. Emakumezkoetan, Maite Maiora ez den lehen irabazlea ezagutu du probak. Min hartuta dagoela-eta, probako menderatzaile nagusiak –jokatu diren bost probak irabazi ditu– ezin izan du parte hartu. Virginia Perez gailendu zen,



2:36:21eko denborarekin. Hiru minutuko aldea atera zion Montse Vazquezi (2:39:25), eta lau minutukoa Nerea Amilibia aiarrari (2:40:18). Guztira 208 lagunek amaitu zuten proba. Argazkiak eta sailkapena barren.eusen

Familiantzako patinaje ikastaroa antolatu dute

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak familiei zuzendutako patinaje ikastaroa antolatu du. Maiatzeko barixakuetan izango da (hilaren 6an, 13an, 20an eta 27an), Ikastolako frontoian, 17:30etik 19:00etara bitartean. Interesatuek apirilaren 29a baino lehen eman beharko dute izena Olaizaga kiroldegian edo Mintxetako harreran. Familiek ordaindu behar duten matrikula 49 eurokoa da (39 eurokoa Patronatuko bazkideentzat). Banakako matrikula, berriz, 39 eurokoa da (32 eurokoa bazkideentzat).



Jose Gurrutxaga krosa antolatu du Elgoibar Ikastolak domekarako

Elgoibar Ikastolak Jose Gurrutxaga krosaren 23. edizioa antolatu du domekarako. 6tik 16 urtera arteko Elgoibarko eta Mendaroko ikasleek hartuko dute parte, eta azken lasterketa, hamahirugarrena, nagusientzako izango da. Lasterketak 10:30ean hasiko dira Kalegoen plazatik.



Iker Calvok bi proba irabazi zituen Bergarako igeriketa txapelketan

Elgoibarko igeriketa taldeko neska-mutiek Kirol Zehaztasuneko ligako laugarren jardunaldian hartu zuten parte joan zen asteburuan, Bergaran. Marka onak egin zituzten, oro har, eta arduradunek Iker Calvok lortutako bi garaipenak nabarmendu dituzte. 25 metroko (18:91) eta 50 metroko (40:03) tximelata probak irabazi zituen. June Zubiaurrek beste bi probetan lortutako denborak ere azpimarratu dituzte. 03:20:18ko denboran egin zuen 200 metro libreko proba eta 01:41:12ko denboran 100 metro estiloetakoa.



Parte-hartze marka ondu zuten enduro moto lasterketak



Elgoibarko 14. enduro moto lasterketan 120 pilotuk hartu zuten parte joan zen domekan, eta Euskal Herrian antolatutako enduro proba baten parte hartze marka berria ezarri dutela jakinarazi du Urnabitza Kirol Klubak. Eguraldi eguzkitsua egin zuen arren, ibilbidean pilotutako lokatzak asko zaildu zien pilotuei lana, baina, era berean, ikusgarriago ere egin zuen. Argazkiak eta sailkapena *barren.eus*-en.

Euskal Ligararako igoera fasea

Sanloko jubenil eta kadete mutilen taldeek Euskal Ligarako igoera fasea jokatuko dute asteburu honetan. Berangon. Igoera lortuz gero, Euskal Ligan jubenil eta kadete mailako nesken zein mutilen taldeak dituen hirugarren kluba izango litzateke Sanlo, Zarautz eta Usurbilekin batera. Sanlo-Gipuzkoako kirol talde onena izan da aurten kategoria honetan.



Iban Fernandezek erronka berria

Iban Fernandezek erronka berria jarri dio bere buruari, Elgoibarri mendiz mendi lau itzuli jarrian ematea: 156 kilometro 27 orduan. Maiatzaren 27an irtengo da Kalegoen plazatik, 17:00etan. 2-dean B-rotuz taldearekin eta Itsas Salbamentu Humanitarioko ki-deekin elkarlanean antolatu du erronka, eta lortzen duten dirua errefuxiatuei laguntzeko erabiliko dute.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 3 – Orioko 1 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 0 – Idiazabal 4 (1. erreg.)
 Elgoibar 8 – Zumaiako 3 (Jubenilak)
 Anaitasuna 3 – Elgoibar 2 (A kadeteak)
 Arizmendi 1 – Elgoibar 3 (B Kadeteak)
 Elgoibar 1 – Orioko 0 (Oho inf.)
 Elgoibar 1 – Urki 1 (Inf txiki)
 Usurbil 0 – Elgoibar 6 (Aleb errendimend.)
 Elgoibar 8 – Bergara 1 (Aleb partehartzea)

ARETO FUTBOLA

Santurtzi 2 – Concepto Egile 4 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur 54 – Oiartzungo saskilagunak 71

ESKUBALOAIA

Deca 32 – Urduliz 35 (Kad. mut. Euskadiko Txap.)
 Ereintza 32 - Deca 37 (Kad. Eusk. Txap.)
 Deca 29 – Zarautz 39 (Kad. Eusk. Txap.)
 Lagunak 27 – Lauko 27 (Senior emak.)
 Alcorta Forging Group 27 – Uhartea 27 (Sen. giz.)
 Aloña 18 – Tecnifuelle 22 (Jub. nesk.)
 Beristain Banaketak 26 – Zarautz 33 (Jub. mut.)
 Astigarraga 16 – Ereintza 19 (Kad. nesk.)
 Urnieta 16 – Cometel 21 (Kad. nesk.)
 Zarautz 11 – Dario 19 (Kad. nesk.)
 Ordizia 11 – F. Ikus 11 (Inf. nesk.)
 Murgil 34 – Amenabar 17 (Inf mut.)
 H. Txariduna 23 – Aloña 19 (Inf mut.)
 Pulpo 13 – Elgoibar 6 (Aleb. nesk.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 17
 12:30 Concepto Egile – Murillo De Rio Leza

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16
 16:00 Elgoibar – S. Tomas Lizeoa (1. erreg.)
 18:00 Elgoibar – Urola (Oho. jub.)
 Domeka, 17
 12:00 Elgoibar – Aloña Mendi (1. kad.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 16
 10:00 Ikus – Bar Ibaiondo (Inf. nesk.)
 11:15 Cometel – Bera Bera (Inf. nesk.)
 12:30 Dario Bus – Bidasoa A (Inf. nesk.)
 17:00 Pneumax – Legazpi (Kad. nesk.)
 19:00 Lauko – Errotabarri (Senior emak.)
 Domeka, 17
 11:30 Gabaz – Leizaran (Senior giz.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 602 143 798

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 612 243 604

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka zine etxean bertan bizi izaten. Erreferentziak daukat. 631 849 522

Pintore, elektrikari eta iturgin lanak egiteko prest. 632 873 111

Lanerako prest. Iturgintza, elektrikari edo igeltsaritza arloan zein zerbitzari gisa edo adinekoak zaintzen. 612 535 707

Adinekoak zaintzeko edo tabernak eta portalak garbitzeko prest. Orduka. 602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest. Gavez zein orduka. Elgoibartarra naiz eta esperientzia daukat. 660 511 781/943 742 330

Interna edo orduka lan egingo nuke garbiketa edo zaintza lanetan. 655 094 780

Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Baimendutako egoeran. 622 153 750

Garbiketa edo eta ume zein nagusien

zaintza lanak egiteko prest. 633 808 931

Nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 616 833 195

Lan bila nabil. 29 urte. Esperientzia. Ohituta nago lanean. 612 216 458

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 620 152 595

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 684 374 971

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Arduratsua naiz. 631748977

Lan bila. Orduka edo interna. Garbiketa edo adinekoak zaintzen. 628 738 472

Lan bila. Interna edo adinekoak zaintzen. 642 267 113

Umeak edo nagusiak zaintzeko prest eta baita etxeak garbitzeko ere. 631 967 238

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko (etxeak eta elkarte gastronomikoak) prest. 617 571 210

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Sukaldean ere aritzen naizt. Prestutasun osoa. 602 193 095

57 urteko elgoibartarra umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxe lanak egiteko prest. 649 782 967

Emakume arduratsua umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 632 871 550

Eskaintzak

Emakume euskalduna behar da goizean umea ikastolara eraman eta garbiketarako egiteko. Interesatuak deitu 648 203 775 zenbakira 20:00ak eta 21:00ak artean.

Mekanikaria behar dugu. Ajuste eta muntai mekanikoan ibilia. Bidali kurrikuluma Zarauzko 309 posta kuxara.

Trokelgintzan esperientzia duen 40 urte inguruko pertsona baten bila gabilta. 635 747 040

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza salgai. 88 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berrituta. Errosario kalean. 170.000 euro. Kontaktua: *marbora67@hotmail.es* edo 647 438 640

Etxebizitza ematen dut alokairuan Elgoibarko Errosario kalean. Hiru gela, sukalde-jangela, sala eta komuna ditu. Gelaka ere alokatu dezaket. 688 650 060 (Laura).

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gutxienez bi logelakoa. 631 343 232

GARAJEAK.....
Salgai

Garaje itxia salgai edo alokagai. 103 metro koadro, 4,10 metroko altuera. Biltegiarako egokia. Autokarabanak sartzen dira. Olosopen 661 827 292 (arratsaldean deitu).

KINTADAK.....

1971n jaiotako kintada maiatzaren 28an. 12:00etan luntxa Tantan. Bazkaria Karakate jatekian. 50€. Izena emateko azken eguna: maiatzak 20. ES0521002414130200096268.

1953an jaiotako kintada apirilaren 23an. 13:15ean Maalan. Bazkaria Txarridun 14:30ean. Izen-ematea Castrillejo estankoa, apirilaren 20a baino lehen.

1954an jaiotako kintada ekainaren 11n. 13:00etan harrera-luntxa Usoan. Bazkaria Sigman. Sartu 50€ Laboral Kutxa 3035 0007 21 0071056285, maiatzaren 27a baino lehen.

1941ean jaiotako kintada apirilaren 23an. 12:30ean Maalako kaperan hildako lagunak gogoratzeko meza. Bazkaria Txarridun. 60 € Kutxabaneko ES59 2095 5036 5091 1593 5167 zenbakian, apirilak 20 baino lehen.

1991an jaiotako bazkaria ekainaren 4an Belaustegin. Joan nahi dutenek 65€ sartu Kutxako kontu honetan apirilaren 29a baino lehen izen-abizenekin: ES31 2095 5036 50 9115859510. Autobusa egongo da. Animatu!



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Patio baterako irteera duen etxebizitza bat daukat. Patio horretara nire etxebizitzatik baino ezin daiteke irten, beraz, nik besterik ezin dezaket erabili. Estalkiren bat jarri al dezaket eguzkitik eta euritik babesteko?

Patioetan zehaztu behar da guztiena edo pribatua den, eta ondorioz erabilera nolakoa izan behar den. Patioak ezberdindutako bi zati ditu. Batetik, lurraren azalera, norbanako bati bakarrik dago-kiona (kasu honetan zurea), gainontzeko jabekideak alde batera utzit. Bestetik, zabalera, patio aldera leihoak dituzten etxebizitzetara aireztapena eta argia emateko balio duena. Bigarren kasu horretan elementu komun izaera du berez. Hortaz, ezingo du jabe bakarrak erabili.

Komunitateko dokumentuei erreparatu behar zaie ezaugarri pribatua edo komuna duen argi ikusteko eta beharrezkoa bada horren arabera egokitu ahal izateko.

Zure kasuan bezala, bizilagun bakarrak patioarako sarbidea duenean eta komunitateko dokumentuetan ezer zehaztuta ez dagoenean egon liteke arazoa. Orduan, kasu zehatz bakoitza aztertu beharko dira asko direlako.

AHOLKUA: Baliteke komunitateko dokumentazioan patio estali moduan agertzea, baina gero eraikitzaileak horrela ez egin izana jabeek estalki gabe emanez. Kasu hortan patinaren jabeak ez luke komunitatearen baimenik eskatu beharrik izango hori egitea aurreikusita baitago. Baina gainontzeko jabekideei jakinarazi behar lieke eta estalkiaren elementuak eraikineraren ezaugarrietara egokituta erabili beharko lituzke.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Hurrengo zenbakirako, argazkiak martxoaren 30ean, eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**neko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Libe!!!** Maitxe zaitzugu! Ondo pasau zure 6. urtebetetzean.



Zorionak, gure **altxorriari** joan den asteartean urtetxo bat bete zenuelako. Mila muxu etxeko guztion partez.



Igandian 6 urte haundi, **Xabat!** Egun ona pasau! Zorionak familia-koen eta bereziki anaia Manexen partez!



Zorionak, **Ainara**, ta muxu ta besarkada potolo-potolo batzuk etxeko eta lagunen partez!



Zorionak, **Unax**. 13 urte potolo jada! Ondo pasa ta muxuak danon partez!



Zorionak, gure printzesa **Nahia**, zure 7. urtebetetzean. Elgoibarko familiaren partez muxu handi bat.



Gure printzesa **Nahia**ri zorionak, familia guztiaren partez.



Zorionak, **Alaine!** Egun ederra pasatu genuen elkarrekin! Muxuak etxekoan eta bereziki Urko eta Kaieten partez!



Zorionak, **Ibon**, gaur bi urte bete dituzulako. Familiakoen eta bereziki June eta Marinaren partez.



Zorionak, **printzesa**, apirilaren 20an 3 urte! Patxo potolo bat famili-xian eta batez ere Alain, Enai eta Julenen partez



Ongi etorri, **Julen** (martxoak 19) eta **Enai** (martxoak 29). Familia haunditu dozue eta ya in dou kuadrilatua. Patxo haundi bat.



Zorionak, **bikote!** Azkenean iritsi da zuen eguna! Primeran ospatu. Zuen kuadrila.



Zorionak, **Lea** eta **Malen**. Ondo pasa zuen urtebetetze eguna.

PAGOAGA S.A.
 BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
 Tel.: 943 740 612 / Faxa: 943 743 665
 elendo@pagoagasa.com
 www.pagoagasa.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
 talerri@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MEKANIKARIA
 AJUSTE ETA MUNTAIA
 MEKANIKOAN IBILI
 DEN PERTSONA BAT
 BEHAR DA.

BIDALI KURRIKULUMA ZARAUZKO 309 PK RA

NATUR HOUSE
 Ainara Iriondo Ansola
 GIZA ELIKADURAN ETA
 DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22 - Eibar
 Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio
 www.uzuroptika.com

ESKAINITZA BEREZIA
 eguzkitako betaurreko graduatuak
68€ tik hasita

PROGRESIBOAK
199€ tik hasita

RPS: 183/12 Kontsulta itzazu baldintzak

15 BARIXAKUA

19:30 I. Bereziartua Musika Eskolako taldeekin eta txarangarekin kalejira. Etenaldiak: Lekuederren, Kalebarren plazan eta Kalegoen plazan.

20:00 Argazki erakusketa: *Aleppo, belduurraren frontea*. Argazkilaria: Andoni Lubaki. Antolatzailea: Ongarri. Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Apirilaren 30era arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

21:30 Bideo foruma: *Agosto*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 ZAPATUA

10:00-13:00 Ezker abertzalearen Abian prozesuaren 3. batzarra. Kultur Etxeko Sotoan.

11:00 Ingeniaritza dualeko eta heziketa zikloetako informazio saioa. IMHn.

22:30 Kontzertua: Brigada Improductiva eta Egurra Ta Kitto. Sarrera: 5 €. Sutegixa gaztetxean

17 DOMEKA

09:20 Bisita gidatua: Flysch beltza, Debako itsas bazterretik. Gidaria: Inma Mugerza. Antolatzailea: Haizea. Tren geltokian.

10:30 XXIII. Jose Gurrutxaga krosa. Antolatzailea: Elgoibar ikastola. Herriko kaletan.

11:00 *Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera* manifestaziora joateko autobusa. Txankakoako zubian.

16:30 Familia-antzerkia: *Magia lapurra*. Herriko Antzokian.

18 ASTELEHENA

19:00 Elgoibarko Izarrako bazkideen urteko batzar orokorra. Kultur Etxeko hitzaldigelan

20:00 Hitzaldia: *Laudato Si entziklika-Teilatu berak estaltzen gaitu*. Antolatzailea: Kalegoengo San Bartolome eliza. Musika Eskolako auditoriumean.

19 MARTITZENA

15:30 IMHko Asmaola eraikinaren inaugurazioko ekitaldi nagusia.

21 EGUENA

18:00 Parisko zirkoa. Barixakuan ordu berean. Mintxetako aparkalekuan. .

23:30 Komedia gaua. Gorka Aginagalde aktorearen bakarriketa. Tantaka tabernan.

22 BARIXAKUA

17:30 *Etxebizitza Plazara* ekimenaren hasiera (muntaketa, marrazkiak...). Kalegoen Plazan.

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun Zentroko azpiko aldean.

19:00 *Etxebizitza Plazara* ekimena. Inguruko alternatiben esperientziak: Bizi dinamika (Azpeitia) eta Errekaleor Askea (Gasteiz).

20:30 *Etxebizitza Plazara*, afaria.

22:00 *Etxebizitza Plazara*, kontzertuak (Abian, Dardara Akustik, Larra...)

23:30 Komedia gaua. Gorka Aginagalde aktorearen bakarriketa. Tantaka tabernan.

Nabarmenduak

Musika Azkoitian

Bebarruko Jardun musikeroak Bizi dituzte Azkoitiko Mata-deixen. Kontzertuetan rockaren ondorenak dastatuko dituzte, post-rock, post-punk, bestelako post, psikodelia eta hainbat musika estiloren bitartez. Kontzertuetz gain, Melomaniak zinema zikloan musikaren atzeko munduak ezagutzeko aukera eskainiko dute. Gaur, apirilak 15, *Corners of de word* dokumentala emango dute 22:00etan Baztartxon. Kontzertuak bi izango dira asteon Matadeixen: 16an, 23:00etan, Kaluse (Donostiako post-rock taldea) eta Hyedra (Azpeitiako rock instrumental bikoja); eta 19an, 21:30ean, Gnod (Manchesterreko kraut rock, drone eta psikodelia kolektiboa). Apirilaren 20an, berriz, *Finding Fela* dokumentala izango da 21:30ean



Antonia Molinuevo Gomez

2016ko apirilaren 12an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Zinea (Herriko Antzokian)

'Cien años de perdón'

15 Barixakua, 21:30
 16 Zapatua, 19:00 eta 22:15
 (Jatorrizkoa azpigituluekin)
 17 Domeka, 19:00 eta
 18 Astelehena, 21:30



Zuz.: Daniel Calparsoro. Espainia, 2016. Iraupena: 97 min. Generoa: Thrillerra. Aktoreak: Rodrigo De la Serna, Luis Tosar, Raul Arevalo, Patricia Vico, Jose Coronado, Joaquin Furriel, Marian Alvarez, Luciano Cáceres, Luis Callejo, Joaquin Climent . Mozorrotuta eta armak eskutan sei gizonezko Valentziako banketxe bat erasotuko dute. Lapurreta garbi eta erraza zirudiena konplikatu egingo da taldeko bi liderren arteko liskarra eraginez.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

15 Barixakua **BARRENETXEA**
 16 Zapatua **IBAÑEZ**
 17 Domeka **IBAÑEZ**
 18 Astelehena **GARITAONANDIA**
 19 Martitzena **ETXEBERRIA**
 20 Eguaztena **FERNANDEZ**
 21 Eguena **YUDEGO**
 22 Barixakua **ORUESAGASTI**

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756
 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udalzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa...	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea...	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gaztelekua.....	943 743 228
Enplegua-Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kiroldegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuena biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalari anonimoak	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos - Posta.....	943 741 547
Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Haurtzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800



Pilar Salaverria Gurruchaga

2016ko apirilaren 10an hil zen.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Manu Sanchez

Unai Villena



Ez kezkatu nigatik, ondo nago. Erretzeari utzi diot, kirola egiten hasi naiz, eguneko hiru otordu egiten ditut, gauerdia baino lehen oheratzen saiatzen naiz, gero eta gutxiagotan harrapatzen nau loezinak. Zure oroitzapenaren mendekoa naiz oraindik, baina hura ere apaltzen doa emeki-emeki. Orain, putzuetan islatzen diren ezezagunen aurpegietan ikusten zaitut

soilik, egun euritsueta, zebra-bidieren bat gurutzatzeko zain nagoela, lurrera begiratzean. Semaforoa berde jarri eta burua altxatzen dudanean desagertzen zara. Orduan, pauso arinean abiatzen naiz, kokotsa tente, begirada zorutik urrun, jende arteko horizontean tinko, itsu-itsuan aurrerantz. Egun euritsueta espaloietako putzu guztiak zapaltzen ditut, lurrera ez begiratzegatik, zu berriz oroitzeko beldurrez. Bai, halako egunen batean noraezean ikusten banauzu kaletik, begirada galdurik eta oinak mela-mela eginda, ez kezkatu nigatik, ondo nago.

“Orain, putzuetan islatzen diren ezezagunen aurpegietan ikusten zaitut soilik”




II. URTEURRENA

Isidro Astigarraga Arozena

"Katalotza"

2014eko apirilaren 12an hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 16, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Antxoni Larreategi Arenaza

2015eko apirilaren 14an hil zen.

Zure irribarrea, bizipoza eta kemena beti gurekin.

Etxeokak



Ignacio Oñederra Uria

eta

Maria Beristain Egaña



IX. Urteurrena
2007-03-01

I. Urteurrena
2015-04-15

Haien oroimenez urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 16, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



V. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

**Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir eztia
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.
Maitasunez, etxeokak.**

V. urteurreneko meza izango da, apirilaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





Nerea Laburu

Gastronomia eta sukaldaritza
arteak, 3.maila

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 21

OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

ORONA IDEO · APIRILAK 30

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · APIRILAK 16

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

OÑATI · APIRILAK 23

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · APIRILAK 30

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · APIRILAK 21

OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · APIRILAK 21

OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 21

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

#erronkarakoprest